



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2017/12/26

## **Ekonomiaren Garapenerako Foru Diputatuak saltoki txikiei zuzendutako laguntzak beste modu batera bideratuko dirala iragarri dau**

Imanol Pradales Ekonomia eta Lurralde Garapeneko Foru Diputatua gaur goizean agertu da Batzarretara, Bono Dendaren amaieraren eta saltoki txikiei emoten jakezan laguntzak beste modu batera bideratzearen gaineko azalpenak emoteko. Pradales Bizkaiko Batzar Nagusietako Batzordera etorri izana, Arturo Aldecoa Talde Mistoaren ordezkariaren eskariaren ondorioa izan da.

Foru arduradunak esan dauenez, kanpainaren zazpi edizinoak “gutziz arrakastatsuak” izan dira. 2.145 saltokik hartu dabe parte, eta salmentatan 13,7 milioi euro eragin dituen 150.000 bono banatu dira. Imanol Pradalesek sektoreagaz lortu dan adostasun mailea be azpimarratu dau, bai kanpaina martxan jarteko orduan eta baita amaieran be. Eta iragarri dauenez, laguntzak saltoki txikien beste behar batzuetara bideratuko dira hemendik aurrera, kudeaketa arloko prestakuntzara, erretiroaren ondoriozko esku-aldaketetara, bardintasunaren gaineko diagnostikoetara eta Bizkaia Digital Market plataformari emongo jakon bultzadara, beste batzuen artean.

Batzarretako taldeek modu positiboan balorau dabe Bono Denda kanpaina, eta saltoki txikiek gizartean beteten daben lekua eta krisi egoerea, kontsumo ohitura barriak eta kate handien lehiakortasuna dirala eta dituen mehatxuak azpimarratu ditue.

### *CROWDFUNDING FORU EKIMENA*

Beste alde batetik, Ekonomia eta Lurralde Garapeneko Foru Diputatua EH Bildu taldeak eskatuta be etorri da batzarretara, Bizkaiko Foru Aldundiak irailean sortu eban crowdfunding (partaidetzan oinarritutako finantzaketea) plataformaren gaineko azalpenak emoteko. 2018. urterako 170.000 euroko aurrekontua daukan CROWDFUNDING PFP. SL. soziedadeak 340 inbertitzaile inguru erakartea eta batez beste 50.000 euroko finantzaketea eukiko daben zortzi proiektu martxan jarrea aurreikusten dau.

Dana dala, Aldundiko arduradunak egitasmoa aurretiazko fasean dagola azpimarratu dau, Comisión Nacional del Mercado de Valores (CNMV) izeneko erakundeak onestearen zain. Gainera, Estatu osoan partaidetzan oinarritutako finantzaketa modalidade horretako ekimen publiko bakarra dala be nabarmendu dau.

---

### NOTA DE PRENSA

26/12/17

## **El Diputado Foral de Desarrollo Económico anuncia una reorientación de las ayudas al pequeño comercio**

El Diputado Foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha comparecido esta mañana para explicar el fin de la campaña Bono Denda y la reorientación de las ayudas al

pequeño comercio por parte de su departamento. La presencia de Pradales en la comisión de las Juntas Generales de Bizkaia ha respondido a una solicitud del representante del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa.

El responsable foral ha calificado como un “rotundo éxito” las siete ediciones de una campaña que ha incluido a 2.145 comercios y en las que se han distribuido 150.000 bonos, que han generado 13,7 millones de euros en ventas. Imanol Pradales ha subrayado también el grado de consenso alcanzado con el sector, tanto en la puesta en marcha como en la finalización de la campaña. Y ha anunciado la reorientación de las ayudas hacia otras necesidades del pequeño comercio, como formación en la gestión, traspasos por jubilación, diagnósticos de igualdad e impulso de la plataforma Bizkaia Digital Market.

Los diferentes grupos junteros han valorado positivamente la campaña Bono Denda y han resaltado el papel social del pequeño comercio y las amenazas a las que está sometido por la situación de crisis, los nuevos hábitos de consumo y la competencia de las grandes cadenas.

#### INICIATIVA FORAL DE *CROWDFUNDING*

Por otro lado, el Diputado Foral de Desarrollo Económico y Territorial ha comparecido igualmente a solicitud del grupo juntero EH Bildu para dar explicaciones sobre la plataforma de *crowdfunding* (financiación participativa) constituida en septiembre por la Diputación Foral de Bizkaia. La sociedad CROWDFUNDING PFP. SL., que cuenta con una partida presupuestaria de 170.000 euros para el ejercicio 2018, aspira a atraer, según ha detallado Pradales, a unos 340 inversores y poner en marcha ocho proyectos con una financiación media de 50.000 euros.

En todo caso, el responsable foral ha recalado que el proyecto se encuentra en fase preliminar, pendiente de aprobación por parte de la Comisión Nacional del Mercado de Valores (CNMV). Asimismo ha hecho hincapié en que se trata de la única iniciativa pública en esta modalidad de financiación participativa en el ámbito del Estado.